OLAZTIKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OLAZAGUTIA 31809 (NAVARRA)

24/02/2023 10:03:02
73419073Z JOSEBA VIZUETE (R: P3118900D)
Original firmado electrónicamente

**Olaztiko Udalaren Osoko Bilkuran 2023ko otsailaren 23an egindako ez ohiko eta larriko bilkuran hartutako erabakien zerrenda, behin betiko onespenaren zain.**

## AKORDIOAK

**LEHENENGOA.- OSOKO BILKURAREN BERRESPENA BILKURAREN EZOHIKO ETA PRESAZKO IZAERARI BURUZ (NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOARI BURUZKO UZTAILAREN 2KO 6/1990 FORU LEGEAREN 78.1 ARTIKULUA)**

Alkate-udalburuak osoko bilkuraren presaren gaineko bozketa egin du, eta bertaratutako kideek **AHO BATEZ** onartu dute.

**BIGARRENA.- HALA BADAGOKIO, 2022KO AURREKONTU LUZATUAREN 1. IGOERA ONARTZEA, ASFALTATZEKO LANAK EGITEKO**

2023ko otsailaren 21Ean Kontuhartzailetzak bota duen txostena ikusirik.

Alkate-udalburuak bozkatu egin du, eta bertaratutako kide guztiek **AHO BATEZ** onartu dute ondorengo

### AKORDIOA

**LEHENENGOA.-** Asfaltatzeko lanak egiteko 2023ko ekitaldiko aurrekontu luzatuaren lgo igoera onartzea.

**BIGARRENA.-** Udaleko iragarki-oholean jartzea hasierako onarpen hau, 15 egun naturaleko epean, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta bidezkotzat

**Relación de acuerdos adoptados en el Pleno del Ayuntamiento de Olazti/Olazagutia en sesión extraordinaria urgente celebrada el día 23 de febrero de 2023, a reserva de su aprobación definitiva:**

## ACUERDOS

**PRIMERO.- RATIFICACIÓN DEL PLENO SOBRE EL CARACTER EXTRAORDINARIO Y URGENTE DE LA SESIÓN (ART. 78.1 DE LA LEY FORAL 6/1990, DE 2 DE JULIO DE LA ADMINISTRACIÓN LOCAL DE NAVARRA)**

El Alcalde-Presidente somete a votación del Pleno la urgencia de la sesión aprobándose por **UNANIMIDAD** de todos los presentes.

**SEGUNDO.- APROBAR, SI PROCEDE, EL ALZA Nº1 AL PRESUPUESTO PRORROGADO DE 2023 PARA LA EJECUCIÓN DE ASFALTADO DE CALLES**

Visto el informe emitido por Intervención de fecha 21 de febrero de 2023.

El Alcalde-Presidente somete el asunto a votación aprobándose por **UNANIMIDAD** de los miembros presentes el siguiente

### ACUERDO

**PRIMERO**.- Aprobar inicialmente el alza nº 1 al presupuesto prorrogado del ejercicio 2023 para la ejecución de asfaltado de calles.

**SEGUNDO**.- Exponer en el tablón de anuncios del Ayuntamiento la presente aprobación inicial durante 15 días naturales a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las

jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

reclamaciones que estimen pertinentes.

**HIRUGARRENA.-** Hasierako onespenaren erabaki hau behin betiko onartzea, baldin eta jendaurrean egon bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

**TERCERO**.- Aprobar con carácter definitivo, el presente acuerdo de aprobación inicial si contra el mismo no se presentasen reclamaciones durante el periodo de exposición pública.

**HIRUGARRENA.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2023KO AURREKONTU LUZATUAREN 2. IGOERA, FRONTOIAN HOBEKUNTZAK EGITEKO**

**TERCERO.- APROBAR, SI PROCEDE, EL ALZA Nº2 AL PRESUPUESTO PRORROGADO DE 2023 PARA LA EJECUCIÓN DE MEJORAS EN EL FRONTON**

Ikusirik kontu-hartzailetzak 2023ko otsailaren 21ean egindako txostena.

Visto el informe emitido por Intervención de fecha 21 de febrero de 2023.

Alkate-udalburuak bozkatu egin du, eta bertaratutako kide guztiek **AHO BATEZ** onartu dute ondorengo

El Alcalde-Presidente somete el asunto a votación aprobándose por **UNANIMIDAD** de los miembros presentes el siguiente

**AKORDIOA:**

**ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Hasierako onarpena ematea 2023ko ekitaldiko aurrekontu luzatuaren 2. igoerari, frontoian hobekuntzak egiteko.

**PRIMERO**.- Aprobar inicialmente el alza nº 2 al presupuesto prorrogado del ejercicio 2023 para la ejecución de mejoras en el frontón.

**BIGARRENA.-** Udalaren iragarki-oholean jartzea hasierako onarpen hau, 15 egun naturaleko epean, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

**SEGUNDO**.- Exponer en el tablón de anuncios del Ayuntamiento la presente aprobación inicial durante 15 días naturales a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

**HIRUGARRENA.-** Behin betiko onartzea hasierako onespenaren erabaki hau, baldin eta haren aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada jendaurrean jartzeko aldian.

**TERCERO**.- Aprobar con carácter definitivo, el presente acuerdo de aprobación inicial si contra el mismo no se presentasen reclamaciones durante el periodo de exposición pública

**LAUGARRENA.- ALTZANIA ETA BASABEA ETA BARGA MENDIETAN HIRU BASO-LOTEREN ENKANTEAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**CUARTO.- APROBAR, SI PROCEDE, LA ADJUDICACIÓN DEFINITIVA DE LA SUBASTA DE TRES LOTES FORESTALES EN LOS MONTES DE ALTZANIA Y BASABEA Y LA BARGA.**

Gai-zerrendatik kendu da, onartzeko legez

Se retira del orden del día por no existir la

ezarritako gehiengoa ez dagoelako.

**<u>BOSTGARRENA</u>.- OLAZTIKO 1. POLIGONOKO 3012-A, 3001-C-IV ETA 3001-C-III LURZATIETAKO BARATZETARAKO HERRI-LURREN APROBETXAMENDUAK BERRESKURATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkatetzaren 2022ko urriaren 21eko 292., 293. eta 294. ebazpenen bidez, Abel Uría jaunaren, Marieta Vasileva andrearen eta Borja Marquez jaunaren aurkako zehapen-prozedurak hasi ziren herri-aprobetxamenduak arautzen dituen udal-ordenantza hausteagatik, hurrenez hurren. Kontuan hartu dira, halaber, Abel Uría jaunak eta Borja Marquez jaunak garaiz eta behar bezala aurkeztutako alegazioak eta 2022ko maiatzaren 11ko txosten juridikoa.

Abel Uría jaunak, bere alegazioan, 1. poligonoko 3012-A lurzatiko baratzerako herri-lurraren esleipenari berariaz uko egiteko eskatu du.

Borja Marquez jaunak bere alegazioan aitortzen du urtebete baino ez duela zuzen erabili, 2018ko azaroaren 28an esleitu zenetik.

Olaztiko 1. poligonoko 3012-A lurzatia hiru zatitan banatzeko udal aguazilak egindako proposamena kontuan hartu da.

Informazio-batzorde mistoak 2023ko urtarrilaren 13an egindako aldeko irizpena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82.4 eta 94. artikuluetan xedatutakoa eta Olaztiko Udalaren herri-aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 54. artikuluan xedatutakoa aztertu ondoren, honako hau

Alkate-udalburuak bozkatu egin du, eta bertaratutako kide guztiek **AHO BATEZ** onartu dute ondorengo

mayoría legalmente establecida para su aprobación

**<u>QUINTO.-</u> APROBAR, SI PROCEDE, LA RECUPERACIÓN DE LOS APROVECHAMIENTOS DE TERRENOS COMUNALES PARA HUERTA DE LAS PARCELAS 3012-A, 3001-C-IV Y 3001-C-III DEL POLÍGONO 1 DE OLAZTI/OLAZAGUTIA.**

Visto que mediante Resoluciones de Alcaldía 292, 293 y 294 de 2022 de 21 de octubre, se iniciaban procedimientos sancionadores por infracción de la ordenanza municipal reguladora de los aprovechamientos comunales contra D. Abel Uría, Dª Marieta Vasileva y D. Borja Marquez, respectivamente. Considerando así mismo las alegaciones presentadas por D. Abel Uría y D. Borja Marquez en tiempo y forma y el informe jurídico de fecha 11 de mayo de 2022.

Considerando que D. Abel Uría solicita en su alegación la renuncia expresa a la adjudicación del terreno comunal para huerta de la parcela 3012-A del polígono 1.

Considerando que D. Borja Marquez reconoce en su alegación que solo lo ha usado correctamente un año desde su adjudicación el 28 de noviembre de 2018.

Considerando la propuesta del Alguacil municipal para la división en tres partes de la parcela 3012-A del polígono 1 de Olazti/Olazagutia.

Visto el dictamen favorable de la comisión informativa mixta celebrada el día 13 de enero de 2023 y lo dispuesto en los artículos 82.4 y 94 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones Públicas y lo dispuesto en el artículo 54 de la ordenanza reguladora de los aprovechamientos comunales del Ayuntamiento de Olazti/Olazagutia,

El Alcalde-Presidente somete el asunto a votación aprobándose por **UNANIMIDAD** de los miembros presentes el siguiente

**AKORDIOA:**

**LEHENENGOA.-** Abel Uria jaunak komunalari uko egiteko egindako eskaera erabat onartzea eta aurkeztutako alegazioak baiestea.

**BIGARRENA.-** Borja Marquez jaunak aurkeztutako alegazioak ezestea.

**HIRUGARRENA.-** Baratze gisa erabiltzeko utzitako herri-lur hauen emakida iraungitzea: 3012-A, Abel Uriari esleitua, 3001-C-IV, Marieta Vasilevari esleitua eta 3001-C-III, Borja Marquez jaunari esleitua. Partzela guztiak Olaztiko 1. poligonokoak. Erabilera ukatuko zaie auzo-aprobetxamendua nabarmen oker edo osatu gabe egiteagatik. Lurren jabetza Olaztiko Udalak berreskuratuko du.

**LAUGARRENA.-** 1. poligonoko 3012-A partzela hiru zatitan zatitzea, eta horren emaitza eta aurreko puntuan ortuetarako herri-lurren zerrendan azaldutako berreskurapenaren emaitza eguneratzea, kudeaketa eraginkorra izan dadin.

**BOSTGARRENA.-** Horretarako hartzen den erabakiaren berri ematea interesdunei, bidezkoak diren errekurtsoen berri emanez.

**SEIGARRENA.-** Hartutako erabakiaren berri ematea Ekonomia eta Kontabilitate Sailari, aguazilei eta udaleko administrazio-zerbitzuei, dagozkion ondorioetarako.

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Aceptar de plano la solicitud de renuncia al comunal de D. Abel Uria y estimar las alegaciones presentadas.

**SEGUNDO.-** Desestimar las alegaciones presentadas por D. Borja Marquez.

**TERCERO.-** Extinguir la concesión de los terrenos comunales destinados a huerta correspondientes a las siguIentes parcelas: 3012-A, adjudicada a D. Abel Uría; 3001-C-IV adjudicada a Dª. Marieta Vasileva; y 3001-C-III adjudicada a D. Borja Marquez, todas del polígono 1 del termino municipal de Olazti/Olazagutia, por realizar el aprovechamiento vecinal de forma manifiestamente incorrecta o incompleta y recuperar la posesión de los mismos a favor del Ayuntamiento de Olazti/Olazagutia.

**CUARTO.-** Proceder a la división de la parcela 3012-A del polígono 1 en tres partes y actualizar el resultado de la misma y de la recuperación expuesta en el punto anterior en el listado de terrenos comunales para huertas desarrollado al efecto, para su gestión efectiva.

**QUINTO**.- Dar traslado del acuerdo que a tal efecto se adopte, a los interesados con la expresión de los recursos que procedan.

**SEXTO.-** Dar cuenta del acuerdo que se adopte al departamento de economía y contabilidad para su conocimiento a efectos tributarios, a los alguaciles y a los servicios administrativos municipales del Ayuntamiento a los efectos oportunos.

**SEIGARRENA.- ALTSASU, OLAZTI ETA ZIORDIKO UDALEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, UDALERRI HAUEK OSATZEN DUTEN OINARRIZKO OSASUN-EREMUAREN EGOERA LARRIAREN AURREAN**

**SEXTO.- APROBAR, SI PROCEDE, LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE LOS AYUNTAMIENTOS DE ALTSASU/ALSASUA, OLAZTI/OLAZAGUTÍA Y ZIORDIA ANTE LA GRAVE SITUACIÓN DE LA ZONA BÁSICA DE SALUD DE SUS MUNICIPIOS**

Alkateak adierazpena irakurri du:

“Altsasu, Olazti eta Ziordiko oinarrizko osasun-eremuan egoera oso larria da, bertako medikuntza plaza batzuk betetzen ez direlako. Hori dela eta, argi eta garbi kaltetzen ari da eskaintzen den osasun-zerbitzua, zeina gure bizilagunen ongizatearen oinarrizko eta funtsezko elementua den.

Adierazpen Instituzional hau sinatzen dugun Udalok gure bizilagunak ordezkatzen ditugu eta haiek helarazten diguten alarma-ahotsa entzuten dugu, kalitatezko arreta izateko ezintasunaren aurrean. Dagokigun mediku guztiak ez egotearen ondorioz, askotan gure bizilagunek Nafarroako Ospitaleko larrialdi-zerbitzura joan behar izaten dute, eta, horrela, garraioa eduki behar izaten dute. Horrek ez dio soilik lehen aipatu dugun herritarren ongizateari eragiten; Nafarroaren lurralde-kohesioari eta funtsezko zerbitzu publikoen beharrezko ekitateari ere zuzenean eragiten dio.

Lurraldeko osasun-arreta kohesioa eta ekitate hauen zutabe nagusietako bat da eta erabat kaltetuak izaten ari dira gure oinarrizko osasun-eremuak, beste oinarrizko osasun-eremu batzuen artean, pairatzen ari duen egoera larriaren aurrean

Badakigu Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak zailtasun handiak dituela hari atxikitako langileak kudeatzeko, batez ere lehen mailako arretan, profesional berriak kontratatzeko ezintasunagatik hain zigortuta baitago. Hala eta guztiz ere, horrek ezin digu eragotzi, berriro ere, gure herrietan lehen mailako arreta bermatzeko egiturazko ekimenak aldarrikatzea eta, gure Udaletako Osoko Bilkurek Nafarroako Osasun Plataformak aurkeztutako mozioa onartuz egin duten bezala, gure bizilagunek beren Osasun Zentroan behar bezala artatuak izateko duten oinarrizko eskubidea aldarrikatu, zenbat mediku egongo diren egun bakoitzean edo zenbat egun (edo agian aste) itxaron beharko

El Alcalde da lectura a la declaración:

“La zona básica de salud de Altsasu, Olazti y Ziordia padece una situación absolutamente grave provocada por la falta de cobertura de algunas de las plazas de medicina correspondientes a la misma, lo cual está trayendo consigo un deterioro claro y evidente del servicio sanitario que se ofrece, el cual constituye un elemento básico y fundamental del bienestar de nuestros vecinos y vecinas.

Los Ayuntamientos que suscribimos esta Declaración Institucional representamos a nuestros vecinos y vecinas y escuchamos la voz de alarma que ellos y ellas nos hacen llegar, ante la desesperación por no poder tener una atención de calidad. La no presencia de todos los médicos y médicas que nos corresponden está trayendo consigo que en muchas ocasiones nuestros vecinos y vecinas deban acudir al servicio de urgencias del Hospital de Navarra, debiendo así disponer de transporte para ello. Ello no solamente afecta al bienestar ciudadano del que antes hablábamos; también afecta directamente a la cohesión territorial de Navarra y a la equidad necesaria de los servicios públicos esenciales.

Una cohesión y equidad que encuentra en la atención sanitaria en el territorio uno de sus principales pilares y que ante la grave situación que padece, entre otras, nuestra zona básica de salud, se está viendo afectada de una forma absolutamente inaceptable.

Somos conscientes de las importantes dificultades que el Departamento de Salud del Gobierno de Navarra se encuentra a la hora de gestionar al personal adscrito al mismo, muy especialmente en atención primaria, tan castigada por la incapacidad para contratar nuevos profesionales. Ello no obstante, ello no puede impedir que reivindiquemos, nuevamente, iniciativas estructurales para garantizar la Atención Primaria en nuestras localidades, tal y como lo han hecho los Plenos de nuestros Ayuntamientos aprobando la moción presentada por la Plataforma de Salud de Navarra, el derecho fundamental de nuestros vecinos y vecinas a ser debidamente atendidos y atendidas por personal médico de

duten aurrez aurreko hitzordua izateko ezjakintasunak eragindako ezinegonik gabe.

su Centro de Salud, sin padecer la continua incógnita sobre cuántos médicos y medicas habrá cada día o cuántos días –o quizá semanas- deberán esperar para poder tener una cita presencial.

Aurrekoa kontutan izanda, Altsasu, Olazti eta Ziordiko Udalok ondorengoa adierazten dugu:

De acuerdo a lo anterior los Ayuntamientos de Altsasu/Alsasua, Olazti/Olazagutía y Ziordia manifestamos lo siguiente:

1º.- Kezka eta sumindura handia agertzen dugu gure oinarrizko osasun-eremuak bizi dueNegoeraren aurrean, duela hilabete batzuetatik hona eta zenbait herritan urte batzuetatik hona medikuntza-langilerik ez dagoelako.

1º.- Mostramos nuestra profunda preocupación e indignación ante la situación que padece nuestra zona básica de salud debido a la falta de personal médico desde hace meses y en algunas localidades años.

2º.- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari eskatzen diogu gure oinarrizko osasun eremuko mediku plazak ahalik eta lasterren beteta daudela bermatzeko ahal dituen jarduketa guztiak egin ditzala, horrela gure bizilagunei zerbitzu duina bermatzeko.

2º.- Reclamamos al Departamento de Salud del Gobierno de Navarra que lleve a cabo todas las actuaciones posibles para garantizar que las plazas de médico/a de nuestra zona básica de salud se encuentren cubiertas a la mayor brevedad, y así poder así garantizar un servicio digno a nuestros vecinos y vecinas.

3º.- Adierazpen Instituzional hau Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari eta komunikabideei helarazi.”

3º.- Trasladar la presente Declaración Institucional al Departamento de Salud del Gobierno de Navarra y a los medios de comunicación.”

Alkate-udalburuak bozkatu egin du, eta bertaratutako kide guztiek **AHO BATEZ** onartu dute ondorengo

El Alcalde-Presidente somete el asunto a votación aprobándose por **UNANIMIDAD** de los miembros presentes el siguiente

**Adierazitako akordio hauen aurka ondoko errekurtsoetariko bat paratzeko aukera dago:**

**Contra dichos acuerdos podrán interponerse, optativamente, uno de los siguientes recursos:**

**BERRAZTERTZEKO errekurtsoa, egintza agindu duen organoari berari zuzendua, akordio hauek udal taulan eta udal web-orrialdean argitaratu eta biharamunetik hasita HILABETEKO epean.**

**Recurso de REPOSICIÓN: ante el mismo órgano autor del acuerdo en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de la publicación de estos acuerdos en el tablón de edictos municipal y página web municipal.**

**ADMINISTRAZIOAREKIKO errekurtsoa, administrazioarekiko Jurisdikzioaren organo eskudunari zuzendua, akordio hauek udal taulan eta udal web-orrialdean argitaratu eta biharamunetik**

**Recurso CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el órgano de la Jurisdicción de lo Contencioso-Administrativo que sea competente, en el plazo de DOS MESES desde el día**

**hasita BI HILABETEKO epean.**

**siguiente al de la publicación de estos acuerdos, en el tablón de edictos municipal y página web municipal o bien,**

**GORA JOTZEKO errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, akordio hauek udal taulan eta udal web-orrialdean argitaratu eta biharamunetik hasita hurrengo HILABETEKO epean.**

**Recurso DE ALZADA directamente ante el Tribunal Administrativo de Navarra, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente de la publicación de los presentes acuerdos en el tablón de edictos municipal y página web municipal.**